

emeren la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# TOLOSAKO HERRITARREN BATZARRA ASAMBLEA CIUDADANA DE TOLOSA

**Ebaluazio txostena**  
Informe de evaluación

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

ZER DA OSASUN ETA  
ONGIZATE EMOZIONAL

(Ikuspegi bio-psiko-soziala)

tti Soroa



BI  
GA  
CA  
ED  
INT



UPV/EHU Aktiba Ikerketa Taldea  
Bertsioa: 2023-04-14 EU  
Egileak:

**Antonio Casado da Rocha**  
**Lucia Pérez Prat**  
**Luken Carbayeda Urruzola**  
**Alba Garmendia Castaños**

ACdRk lantaldea eta erakunde komanditarioekiko harremana koordinatu zituen, ebaluazio prozesuaren fase guztiak integratuz.

AGCk galdetegiaren diseinuan, azken berrikuspenetan eta koordinazio bileretan hartu zuen parte.

LCUk elkarrizketa lanak, koordinazio bilerak, grafikoen diseinuak eta hizkuntza egokitzapenak egin zituen.

LPPek elkarrizketa lanak egin zituen, galdetegiak idatzi, datuak kuantitatiboki eta kualitatiboki aztertu eta emaitzak idatzi.

Taldeko kide guztiek behaketa parte hartzaileak, azken berrikuspenak eta ekarpenak egin zituzten txostenaren emaitzak eztabaidatu eta idazteko.

Dokumentu hau nola aipatu (APA): **Casado da Rocha, A., Pérez Prat, L., Carbayeda Urruzola, L., & Garmendia Castaños, A. (2023). *Tolosako Herriarren Batzarra. Ebaluazio txostena*. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.**

# DELIBERAZIO PROZESU ORDEZKATZAILEA

**T**xosten honetan jaso dira Tolosako Herritarren Batzarrean 2022an UPV/EHUko ikertaldeak egindako ebaluazioaren ezaugarri eta ondorio nagusiak. Elkarrizketen eta behaketaren emaitzak ere jaso dira, hainbat irakaspen eta hobekuntza proposamen eginez.

**HASIERAKO EGOERA,  
PROZESUAREN  
ONDORIOZ IZANDAKO  
ALDAKETAK, ETA  
PROZESUAREN EMAITZAK  
ERE AZTERTU DITUGU**

---

# ESKERRIK ASKO TOLOSA

---

« Zer egin dezake Tolosako udalak lankidetzan publiko-komunitarioaren bidez, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko? »

Horixe izan da Tolosako Herritarren Batzarraren abiapuntuko galdera.

Lehenik eta behin esker ona adierazi nahi diegu Batzarrean parte hartu duten erakunde, agente eta herritar guztiei, ebaluazioan zehar emandako iritzi, datu, dokumentu eta laguntzagatik.

## SARRERA

**D**eliberazio prozesu ordezkatzaile edo Herritarren Batzar batean, ausaz hautatutako pertsona kopuru mugatu batek erabakiak adosten ditu eta, ondoren, erabaki horiek administrazioari helarazten zaizkio politika

publikoetan kontuan hartzeko. Kasu honetan, prozesua Tolosako Udalak eta Arantzazulabek elkarlanean antolatu zuten, eta helburu nagusia, lankidetzaren publiko-komunitarioaren ikuspegitik, erronka konplexu bati erantzuna ematea izan zen. Tolosako prozesuan 32 herritarrek hartu zuten parte.

Esan bezala, zozka hautatutako partaideak izan ziren eta galdera hau jorratu behar izan zuten: Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzaren publiko-komunitarioaren bidetik guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko? Abiapuntua hori izanik, lehenik, gaiari buruz informazioa jaso zuten. Ondoren, taldean deliberatu zuten eta, azkenik, udalari aurkeztu zizkioten elkarrekin adostutako gomendioak.

Txosten honek oinarria *Evaluation Guidelines for Representative Deliberative Processes* Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundearen (ELGA aurrerantzean) eskuliburuan dauka, orientazioa ematen du herritarrekin osatutako deliberazio prozesu ordezkatzailerak ebaluatzeko. Gidak jarraibideak ematen ditu prozesu horien ebaluazioa objektiboa, zehatza eta, batez ere, erabilgarria izan dadin egiaztatzeko. Zenbait adierazle ere finkatzen ditu deliberazio prozesu bat aintzat hartzeko eta, era berean, ebaluatzeko erabil daitezke. Horretarako egokiak diren batzuk hauek dira:

● **Partaidetza:** prozesuan parte hartu duen pertsona kopuruari eta horien ordezkagarritasunari dagokio. Generoa, adina, etnia eta abar hartzen dira kontuan.

● **Hizketaren kalitatea:** deliberazio prozesuan zehar izandako elkarriketen eta eztabaiden kalitatea hartzen da kontuan; entzute aktiboa, elkarrekiko errespetua eta askotariko ikuspegiak onartzea, adibidez.

● **Ordezkarritasuna:** adierazle honekin komunitateko interesen ordezkaritza aniztasuna jartzen da balioan.

● **Gardentasuna:** aintzakotzat hartzen du deliberazio prozesua irekia izan den herritarrentzat, baita informazioa eskura egon den ere.

● **Jasangarritasuna:** egitasmoan hartutako erabakiak ingurumenarentzat jasangarriak izan diren hartzen du kontuan, ekonomiako eta gizarteko gaiei dagokienean, bereziki.

● **Efikazia:** prozesuan hartutako erabakiak eraginkorrak izan diren aztertzen da adierazle honekin.

● **Efizientzia:** egitasmoa, denbora eta baliabideak aintzat hartuta, eraginkorra izan ote den balioesten da.

● **Eragina:** deliberazio prozesuan hartutako erabakiek komunitatean eragin positiboa izan duten aztertzea du helburu faktore honek.

Adierazle horiek jarraibideak baino ez dira, horregatik, garrantzitsua da ebaluazioaren testuinguruaren eta helburu espezifikoen arabera egitea prozesu bakoitzaren ebaluazio irizpideen aukeraketa. Gainera, kontuan hartu behar da elementu guztiak ez direla nahitaez aplikagarriak deliberazio prozesu guztietan.

## GALDETEGIAK

**B**i galdetegi edo inkesta egin ziren Tolosako Herritarren Batzarrean: bat lehen egunean goizez eta bestea, berriz, azken egunean arratsaldez. 32 partaideei bideratuta egonagatik eta hautazkoa izanagatik, momentuan bertan zeuden

parte hartzaile guztiak bete zuten. Zehazki, 31 egile izan ziren prozesuaren hasieran, eta 28 amaieran.

# **EBALUAZIOAREN HELBURUA IZAN DA BATZARRAREN ERAGINA NEURTzea**

## **HELBURUAK**

Galdetegiaren helburua prozesuaren hasierako eta amaierako momentuetako informazioa lortzea izan zen, era horretara, parte hartzaileengan prozesuak eragindako aldaketak hautemateko. Bereziki aztertu nahi izan zen udalarekiko eta lankidetzaren publiko-komunitarioarekiko ezagutza, eragile politikoekiko eta herritarren parte hartzearekiko, baita deliberazio prozesuarekin emandako konfiantza pertsonalean aldaketa ere. Horrez gain, arreta jarri zen ea parte hartzaileek deliberazio prozesua aintzatetsi ote zuten, baita Herritarren Batzarreko balizko ikasketa eta ahalduntzeak beraien ideietan aldaketarik eragin zuen ere.

## **METODOLOGIA**


Datu kuantitatiboekin bi analisi mota egin ziren: batetik, deskribatzailea eta, bestetik, batez besteko aldean azterketa, erlazionatutako laginetan. Lehenengo kasuan, batez besteko orokorrak eta desbideratze tipikoak lortu ziren. Batez bestekoen arteko aldeak aztertzeko, eta laginaren tamaina kontuan hartuta, proba ez-parametrikokoak egin ziren Wilcoxon indizearekin, alde bakarreko esanahi zehatza eta puntuko probabilitatea kalkulatu.

Horrela, 0.10 baino esanahi txikiagoa zuten adierazleen eta 0.05 baino gutxiagoko adierazleen alde marjinalak balioetsi ziren. Horrez gain, bi zenbatekoen arteko Pearsonen korrelazioaren azterketa egin zen eta Cohenen *d* atera, esanahia estatistikoki esanguratsua izan zen kasuetan, egindako analisirako efektuaren tamaina zehazteko. Adierazle horretarako, 0.2tik 0.3ra bitarteko aldaketa efektua txikia da; 0.5 ingurukoa, efektu ertaina, eta 0.8 ingurukoa, azkenik, efektu handia.

## EMAITZA ALDERAGARRIAK

### Udalari eta harreman publiko-komunitarioari buruzko informazioa.

Parte hartzaileek, prozesuaren hasieran, maila baxu-ertainean ezagutzen zituzten udalak osasuna eta ongizate emozionala hobetzera bideratutako politikak eta bere baliabideak. Antzerako ezagutza maila izan zen lankidetzaren publiko-komunitarioaren aukera eta erronkei buruz ere. Prozesuaren amaieran, aldiz,






indize mailak ertain-altuetaraino igo ziren hiru item horietan, eta estatistikoki aldaketa esanguratsuak eman ziren (Wilcoxon indizearen alde marjinalki esanguratsuekin eta Cohenen  $d$  efektu altuarekin).

### **🕒 Konfiantza.**


Parte hartzaileek, prozesuaren hasieran, *politikarekiko* konfiantza ertaina adierazi zuten, eta politikarienganakoa, txikia. Ondoren, aldaketa estatistikoki esanguratsua izan zen *politikarienganako* konfiantzan, maila ertainetaraino areagotuta (Wilcoxon indizea, alde marjinalki esanguratsuekin eta Cohenen  $d$  efektu altuarekin), politikarekiko adierazitako konfiantza mailak, oster, ez zuen aldaketarik izan. Hori horrela izanik ere, hasieran partaideek konfiantza handia adierazi zuten *herritarren parte hartzeari eta deliberazio prozesuei dagokienez*, eta prozesua amaitu ondoren areagotu egin zen (bi kasuetan Wilcoxon indizea, alde marjinalki esanguratsuekin eta Cohenen  $d$  efektu ertainarekin).



# POLITIKARIENGANAKO KONFIANTZA ALDAKETA IZAN DA, BAINA ORO HAR EZ POLITIKAREKIKOA



## Deliberazio prozesuekiko garrantzia eta izaera loteslea.

Prozesuaren hasieran zein amaieran, parte hartzaileek argi adierazi zuten partaidetza prozesu gehiago egitearen garrantzia. Era berean, gomendioak lotesleak izatearen garrantzia azpimarratu zuten, hau da, partaideek adostutako gomendioak aplikatzearena.




## Prozesuak eragindako aldaketak.

Handitu egin da, estatistikoki, partaideek ekarpenak egiteko duten ahalmenaren irudipena, baita argudiatzeko duten gaitasunaren ustea ere. Gainera, estatistikoki gehigoranzko joera izan zuten entzuteko gaitasunaren adierazleak, prozesuan maila ematearenak eta Herritarren Batzarraz gozatzearenak (kasu guztietan, Wilcoxon indizea alde marjinalki esanguratsuekin eta Cohenen  $d$  efektu ertainarekin).



# BERAIEN GAITASUNEN PERTZEPZIOA NABARMEN HANDITU DA


"Udalerrian antolatutako ekimenen batean parte hartzen duzu?"



## **Partaidetza politikoa eta etorkizunean parte hartzeko motibazioa.**

Prozesuaren hasieran, herritarren % 58.10k adierazi zuten ez zuela udalerrian antolatutako ekimenetan parte hartzen, % 25.80k, aitzitik, parte hartzen zuten. % 16.10k erantzun zuten iraganean parte hartzen zuela, baina lehen galdetgia betetako unean ezetz. Batzarra amaitzean, udalerriko jarduera antolaturen batean parte hartzeko motibazioari buruz galdetu zitzairen,

eta % 82.10k adierazi zuen parte hartu nahi zuela, % 17.90k ez zekiela erantzun zuen. Inork ez zuen ezeztatu parte hartu nahi zuenik.




## PROZESUAREN AURRETIK ERANTZUNDAKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

### Landutako gaiari buruzko interesa.

Deliberazio prozesuaren hasieran, partaideei galdetu zitzaien osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren gaia interesgarria ote zen, bai udalarentzat, bai Tolosako herritarrentzat. Bi kasuetan altu baloratu zen prozesuan jorratutako gaia.

"Zure ustez, zenbatean erantzuten dio Herritarren Batzarreko gaiak ... ?"



### **Motibazioa.**

Horren ondoren, prozesuaren hasieran motibatuta sentitzen ziren galdetu zitzaien Herritarren Batzarrean aritzeko. Análisi estatistikoek argi utzi zuten motibazioa, oro har, oso handia izan zela.

"Motibatuta sentitzen zara prozesu honetan parte hartzeko?"



# PROZESUAREN ONDOREN ERANTZUNDAKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

## 🕒 **Prozesuarekiko gogobetetzea.**


Deliberazio prozesua amaitu ondoren, parte hartzaileei pozik zeuden ala ez galdetu zitzairen. Orokorki, gogobetetze handia erakutsi zuten deliberazio prozesuarekiko.

"Zenbatean gogobete zaitu Herritarren Batzarraren prozesuak?"




Hein berean, partaideek bereziki estimatu zuten beste pertsona batzuekin elkartzea, saioetan zehar jasotako laguntza, prozesuko laguntzaileen kalitatea eta norbere ekarpenak taldearen barruan balioetsi zirela sentitzea. Ez hori bakarrik: jasotako informazioa, prozesua hasi aurretik gaia ulertzeko modu pertsonalarekiko aldaketa eta prozesuan parte hartu

"Zure ustez, zenbatean izan dira erabakigarriak faktore hauek prozesua baloratzeko garaian?"



"Zure ustez, zenbatean izan dira erabakigarriak faktore hauek prozesua baloratzeko garaian?"



izanagatik eskuratutako gaitasunekiko pertzepzioa gogobetetzean giltzarri jo zituzten parte hartzaileek. Kontuan hartzekoa da, bestetik, gutxien baloratutakoa izan zela udalak bere baliabideekin osasun mentalari eta ongizate emozionalari aurre egiteko gaitasuna.




(Dena den, zenbateko murriztena jaso zuen faktorea izan arren, puntuazioa altua da.)

# BARNE FAKTOREEK (LAGUNTZAK, ELKARTZEAK, ENTZUTEAK...) ERAGIN HANDIAGOA IZAN DUTE


## Prozesuaren iraupena.

Parte hartzaile gehienek (% 69.20) baloratu zuten prozesuaren iraupena egokia izan zela. % 15.40k, hala ere, zalantzak adierazi zituzten eta % 11.50k, denbora justua izan zela. Partaideen % 3.8k soilik adierazi zuten luzeegia izan zela prozesua.



## Balizko denbora gehigarria.


Ebaluaziorako erabilitako laginaren % 28.10k denbora gehiago erabiliko zukeen, aukera egongo balitz, tokiko eragile gehiago ekartzeko, eta gaian adituak entzuteko (% 23). He in txikiago batean, parte hartzaileen % 15.60k deliberatzen eta gomendioak egikaritzen denbora gehiago emango zuketela esan zuten, % 14.10k gomendioak idazten eta % 10.90k gomendioak adosten. Amaitzeko, % 4.70k adierazi zuten balizko denbora gehigarria erabiliko zuketela etenaldi gehiago izateko; eta % 3.10k, beste zerbaitetarako.



## Askotariko iritziak.

Galdetegia amaitzeko, parte hartzaileei galdegin zitzairen ea gainerako kideek prozesuan zehar beraienak ez bezalako iritziak eman ote zituzten irudipena zuten. Hor, % 78.60k adierazi zuen batzuk

"Zenbat parte hartzailek izan dituzte zureaz bestelako iritziaik?"



baietz; partaideen % 7.1k adierazi zuen gehiengoak izan zituela bereak ez bezalako iritziaik; beste % 7.1k, inork ezetz eta gainerako % 7.1k, berriz, ez zekiela.

## DELIBERAZIO SAIOETAN ASKOTARIKO IRITZIAK ENTZUN DIRA

# PARTE HARTZAILEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETAK

**H**erritarren Batzarreko 10 partaideei egin zitzaizkien elkarrizketak, beti ere, ELGAK gomendatutako adin eta genero irizpideei jarraiki. Horren arabera, adin tarte bakoitzeko emakume bat eta gizon bat aukeratu zen. Elkarrizketatuak izateko baimena eskatu zitzaien, eta guztiek onartu zuten.

## HELBURUAK

Elkarrizketen xedea deliberazio prozesuan parte hartutako herritarren esperientzia eta beraiek hautemandakoa sakonago ulertu ahal izatea izan zen. Bereziki, prozesuaren *feedback*a lortu nahi izan zen, zerk funtzionatu zuen ongi eta zerk ez jakiteko, baita etorkizuneko prozesuetan zein aldaketa egin zitezkeen jakiteko ere. Bestalde, prozesuak gaitasun pertsonalak zein taldekakoak garatzea ahalbidetu ote zuen ikertu zen eta, azkenik, parte hartzaileek harreman publiko-komunitarioari buruz zituzten pertzepzioak.

## TEKNIKA

Planteatutako helburuei erantzuteko, elkarrizketa erdi egituratuak diseinatu ziren. Arestian esandako 10 pertsona izan ziren elkarrizketatuak; aurrez aurre, 5

minutu inguru. Horretarako, deliberazio saioetako atsedendialdiak baliatu ziren. Ondoren, elkarrizketak transkribatu eta aztertu ziren gaika eta kategoriaka sailkatuta, 3 epaile independenteren arteko akordioarekin, prozesuaren zorroztasuna bermatzeko.

## EMAITZAK

### **Eginkizunaren argitasuna**

Elkarrizketatuei prozesuan partaideek zuten eginkizuna zein zen galdetu zitzaizenean, gehienek, gomendioen ekarpenaren inguruan definitu zuten beraien egitekoa. Erdiek, halere, informazioa eskuratzea ere aipatu zuten.

*Nire eta gainerako partaideen eginkizuna Tolosako proiekturako gure iritziak ematea dela uste dut (emakumea 51-60 urte).*

*Uste dut gure konpromisoa, lehenik, arazoari buruz ikastea dela (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

Gutxiago hitz egin zuten deliberazioaren eta taldeko eztabaidaren eginkizunari buruz:

*Taldea deliberatzea, hain zaila eta globala den galderari erantzuten hasteko (emakumea, 18-30 urte).*

### **Prozesuaren eragina.**

Bigarrenik, kontsulta egin zitzaizen prozesuak beraientzat, eta oro har Tolosako herritarrentzat izan zuen erabilgarritasunaren inguruan. Elkarrizketetatik deliberazio saioen baliagarritasuna azalerratu zen, landutako gaia abiapuntu hartuta partaideen ahalduntzea sustatu baitzuen.

*Mundu honetan murgiltzen hasteko eta gaian pixka bat trebatzeko jarraibideak ematen dizkirate (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

*Ba, adibidez, Batzarrera etorri arte ez nuen informaziorik (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

**Herritarrenganako eraginari dagokionean, askotariko iritziak jaso ziren. Zenbaitek eragin positiboa zuela kontatu zuten, baina beste batzuk denboraren faktorea aipatu zuten: aldaketak benetakoak ziren jakiteko denbora gehiago behar zela. Besteren batzuk esan zuten prozesuari buruzko informazioa ez zitzaiela herritarrei helarazten ari.**

*Nik ikasiz beste batzuei erakusteko aukera daukat; nik ikasitakoa irakatsi (emakumea, 51-60 urte).*

*Uste dut aldaketa bat etorriko dela eboluzionatzen joan ahala, hala espero dut. Ez dakit, ez dakit (emakumea, 31-40 urte).*

*Herritarrentzat baliagarria izaten ari al den?... Uste dut ez dakitela Herritarren Batzarra martxan dagoela (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

## **Deliberazio prozesuaren balorazioa.**

Elkarrizketetan oso positiboki baloratu zen deliberazio prozesua. Batik bat, garrantzitsutzat jo zen gaia, osasun mentalarena eta ongizate emozionalarena. Partaideek kezka adierazi zuten, bai pertsonalki zein komunitateren ikuspegitik horren inguruan.

*Osasun mentala haurrek, gazteek eta adinekoek behar dute (emakumea, 51-60 urte).*

*Gai oso partekatua da osasun mentala eta ongizate emozionala (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

Aurrera egin ahala, partaideen aniztasunaren garrantzia atera zen eta, horri esker, hainbat errealitate interesgarri eta elkarren ezezagun kontrastatu zirela onartu.

*Oso aberasgarria da, adin askotako jendea elkartzen gara-eta; kultura eta pentsamendu ezberdinetakoak (emakumea, 18-30 urte).*

*Egon daitezkeen errealitateak ikusteko balio izan du (emakumea, 31-40 urte).*

### **Harreman publiko-komunitarioari buruz.**

Azkenik, elkarriketen azterketatik deliberazio prozesuak lantzearen garrantzia aipatu zen, harreman publiko-komunitarioak sakontzeko egokiak direla uste zelako.

*Nahiko baliagarria da niretzat, bai (emakumea, 51-60 urte).*

*Baloratzekoa da udaleko hiru alderdi politikoen ekimena izatea (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

Horrez gain, herritarren eta erakunde publikoen arteko lotura estua azpimarratu zen. Adierazi zen garrantzitsua zela ere herritarren partaidetzarako gakoetan sakontzen jarraitzea, harremana aberasgarritzat hartzen baitzen alde guztiarentzat.

*Lankidetzeta hau oso emankorra da mundu guztiarentzat (emakumea, 51-60 urte).*

*Herritarren partaidetzeta espero da, baina, ondoren, herritarrek ere exiji dezakete (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

Erakunde publikoak inplikatzearen balioa ere aipatu zen, osasun mentalaren eta herritarren ongizate emozionalaren gaiari heltzeko erabakiak diseinatzeko eta ezartzeko garaian.

*Herritarrak gure aldaketak egiten baditugu ere, instituzionalki gaiari irtenbidea eman diezaioketen aldaketak egiten ez badira ez dakit zer eragin izango duen ahalegin horrek (emakumea, 18-30 urte).*

*Nire ustez, beharrezkoa da erakundearen lana. Uste dut ona dela, lagundu nahi dutenek kolaboratu egin behar dute. Beste buelta bat eman behar zaio lehen eman ez zaion honi (emakumea, 31-40 urte).*

Amaitzeko, elkarrizketetan nabarmendu zen partaideek ez zutela informazio nahikorik udalak osasun mentalari eta ongizate emozionalari dagoeneko eskaintzen dizkion baliabideei buruz. Egia da prozesuak aurrera egin ahala informazio gehiago izan zutela, baina herritarrek baliabide horiek ez ezagutzea hobetu beharreko arloetako bat zela aipatu zuten.

*Orain konturatzen naiz gauza asko egiten dituela udalak, baina, agian, ez zaizkit iristen. Udala ere saiatu beharko litzateke herritarrok bere berri gehiago izaten (emakumea, 31-40 urte).*

*Ez daukat informaziorik udalaren baliabideei buruz, ez baitakit zer dagoen nire herrian (emakumea, 61 urte).*

## BEHAKETA

**B**atzarraren zuzeneko behaketatik ere datuak lortzea proposatzen zuen ELGAK. Hori lortzeko, ebaluazio taldeko pertsona bat, gutxienez, saio guztietara joan zen. Antolakundeak finkatutako ebaluazio irizpideekin oharrak hartu ziren, eta informazio hori ere eztabaida ontzeko erabili zen.

Bestalde, prozesuan zehar sortutako dokumentazioaren behaketa egin zen, bai talde



eragilearen barrukoa (digitala), bai kanpoko (partehartzaileei eta herritarrei paperean, webguneetan eta sare sozialetan banatutakoa).

# ANTOLATZAILEEKIN EGINDAKO EBALUAZIOA

## TEKNIKA

ELGaren irizpideei jarraiki, deliberazio prozesu ordezkatzailearen ebaluazioa osatzeko antolatzaileen ikuspegia jaso zen. Zehazki, 6 elkarrizketa erdi egituratu egin zitzaizkien talde eragileko batzuei.

## EMAITZAK

Antolatzaileekin egindako ebaluaziotik jasotako informazioa eztabaida osatzeko erabili zen.

## EZTABAIDA

**P**rozesuko metodologia eta emaitzak deskribatu ondoren, atal honetan interpretazio sistematiko bat egingo da, ELGak deliberazio prozesuak ebaluatzen zehaztutako irizpideei jarraituz. Horretarako, inkestetatik, elkarrizketetatik eta behaketatik ateratako datuak erabiliko dira.

## HELBURUA

Tolosako deliberazio prozesuaren xedea lankidetzaren publiko-komunitariotik abiatu, eta osasun mentaltan eta ongizate emozionalaren erronkari erantzunak ematea izan zen. Horretarako, gaiari buruzko informazioa jaso zen, hasteko. Ondoren, taldean deliberatu zen eta, azkenik, adostutako gomendioak aurkeztu zitzaizkion udalari.

Fase horiek koherenteak dira partaideengandik lortutako datuekin: gehienek ulertu zuten beraien zeregin nagusia gomendioak egitea eta informazioa eskuratzea izan zela. Urriago adierazi zuten, ordea, talde deliberazioa zela egitekoa.

Azkenik lortu beharrekoak, hau da, gomendioetara iristeak, nolabaiteko bikoiztasuna eragin zuen antolatzaileen ustez gomendioen eta proposamenen artean. Itxuraz, gomendioen aldekoagoak omen ziren antolatzaileak:

*Galdera irizpideetara edo gomendioetara baino, proposamenetara bideratuta zegoen. Proposamenak egin behar badira, abiapuntuak informazioa asko landu behar da (antolatzailea).*

## ERANTZUNKIZUNA

ELGArentzat erantzukizunaren printzipioa partekatua da partaideen eta politikarien artean. Hain zuzen, prozesua ongi atera eta ondoren hartutako erabakien arabera da.

Galdera argia da: Eraginik izan al du Herritarren Batzarrak erabaki publikoetan? Erantzuna emateko goiz bada ere, ikertutakoak ikertuta, partaideek espero zuten egindako gomendioei erantzun politiko-instituzionala emango zaiela.

*Herritarren partaidetza espero da, baina, ondoren, herritarrek ere exiji dezakete (emakumea, 61 urte baino gehiago).*

Hori horrela izanik, parte hartzaileek garrantzitsutzat jo zuten erakunde publikoak inplikatzeari herritarren osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren gaiari heltzeko erabakiak diseinatzen eta ezartzen.

*Nire ustez, beharrezkoa da erakundeeen lana. Uste dut ona dela, lagundu nahi dutenek kolaboratu egin behar dute. Beste buelta bat eman behar zaio lehen eman ez zaion honi (emakumea, 31-40 urte).*

## GARDENTASUNA

Gardentasuna prozesuaren gainean informazioa zabaltzeko eta eskuragarri egitea da, bai partaideentzat, bai herritarrentzat.

Batzarrak hedapena izan zuen komunikabideetan eta sare sozialetan. Erakunde antolatzaileak izan ziren prozesuaren berri gehien eman zutenak. Arantzazulabek segimendu jarraia egin zuen albisteak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratuta bere web orrian. Tolosako Udalak ere, murriztago, Batzarrari buruzko informazioa eman zuen web orrian. Komunikabideei dagokienez, *Tolosaldeko Atariak* prozesua zabaltzeko fase guztietan zehar, eta *El Diario Vasco* egunkariak lurraldean hainbat albiste argitaratu zituen. *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak eta *28 Kanalak* ere, behin edo behin, deliberazio prozesuari buruz hitz egin zuten.

Sare sozialetan Arantzazulaben eta Tolosako Udalaren kontuek eman zuten prozesuaren berri, batik bat. Horrez gain, antolatzaileetako batzuk informazio osagarria zintzilikatu zuten beraien kontu pertsonaletan.

Partaideei dagokienez, elkarrizketatutakoen erdiak jo zuten baliozkotzat prozesua herritarrentzat; beste

batzuek balorazioa epe ertain-luzean egin beharko zela zioten, eta beste batzuek, berriz, esan zuten prozesuaren inguruko informazioa ez zela herritarren artean zabaltzen ari.

Egia da egitasmoaren weborrian informazio dena zuzen eta osorik argitaratu dela. Aitortzekoa da Tolosako Udalaren bai Arantzazulaben ahalegina, prozesuan zehar informazioa, dokumentuak eta bideo guztiak bertan partekatzeko. Gardentasuna, beraz, guztiz bermatuta dago. Dena den, horren irisgarritasuna hobetu daiteke, beharbada herritar gehienek ez dakitelako weborria existitzen dela.

## ORDEZKAGARRITASUNA

ELGAK finkatutako irizpide honek deliberazio prozesu ordezkatzailan askotariko iritziak eta ikuspegiak barneratzea du helburu. Era horretan, prozesuko emaitzak ekitatiboagoak eta legezkoagoak izan ohi dira. Horregatik, aniztasuna, inklusioa, oreka, partaidetza aktiboa eta komunikazio eraginkorra funtsezkoak dira deliberazio prozesuetan ordezkarrizta izateko.

Tolosako prozesuko parte-hartzaileen hautaketa ausaz ezarri zen, eta *Sortition Foundation*-en software erabilia egin zuen Aztikerrek zozketa zibikoa. Udal errolda baliatuz, 16 urtetik gorako biztanle guztien artean lehen zozketan hautatuak izan ziren 2400 herritarrek prozesuan parte hartzeko gonbidapen gutuna pertsonalizatua jaso zuten. Horietatik izena eman zutenen artean bigarren zozketa bat egin zen 32 herritarrek osatutako taldea eratzeko, generoa, adina, hezkuntza eta bizitokia irizpide hartuta. Hala, ELGAK deliberazio prozesuetan ordezkagarritasuna bermatzeko pausoak jarraitu ziren, eta, bai: Tolosako biztanleen aniztasuna islatzen zuen taldea sortu zen.

Partaideek ere hauteman zuten askotariko ikuskerak zeudela ordezkaturako prozesuan. Are gehiago, oso positibotzat hartu zen deliberazio prozesuarekiko gogobetetzea azaltzeko orduan. Ildo beretik, nabarmendu zuten norbere ekarpenak deliberazio taldearen barruan aintzat hartu zirela; azalpenak argudiatzeko eta besteei entzuteko gaitasuna ere indartuta.

## INKLUSIOA

Interesdun guztiek deliberazio prozesuan parte hartzeko aukera izatea da inklusioa.

Prestaketa fasean, tolosarrek prozesuari buruzko informazioa eta parte hartzeko pertsonalizatutako gonbidapena jaso zuten, kokapen geografikoa, hezkuntza, ezagutza teknikoa edo aniztasun funtzionala edozein izanik ere. Bestalde, uneoro hizkuntza ulermena bermatu zen, aldibereko itzulpenarekin eta dokumentu elebidunen banaketarekin. Laguntzaileak ere partaideen beharretara egokitu ziren, eta babesa eskaini zuten beharrezkoa izan zenean.

Hala eta guztiz, herritar guztien irisgarritasuna ziurtatzeko oraindik bidea dago egiteko; bereziki arreta ipinita aniztasun funtzionalean, zaintzan eta guztientzat ulergarria den hizkuntza erabileran, besteak beste.

## INFORMAZIOA

Deliberazio prozesuko partaideek informazio osoa, zehatza eta garrantzitsua jaso behar dute landuko duten gaiaren inguruan. Hori dio ELGAREN informazioaren printzipioak.

Alde horretatik, ondorioztatzen da prozesuan zehar partaideek behar beste informazio jaso zutela. Elementu hori positiboki baloratu zuten, baita, horrez gain, jorratutako gaiari eta harreman publiko-komunitarioari buruzko gaitasunak eskuratzea ere.

Hala eta guztiz ere, informazioaren edukiak hobeto egokitu zitezkeen:

*Hitzaldi batzuk teknikoki maila altukoak izan dira, prozesuaren beharretara nahikoa gerturatu gabe (antolatzailea)*

## TALDE DELIBERAZIOA

Talde deliberazioak fundamentuzko ikuspegiak eta argudioak ematea eskatzen du, elkarlanean gomendio justu eta ekitatekoetara iristeko. Deliberazioa, ordea, batzuetan, bigarren mailara igaro zen, informazioa eskuratzeko eta gomendioak egiteko premia praktikoa zegoelako.

Antolatzaileekin egindako elkarrizketetan nolabaiteko frustrazioa atzeman zen laguntzaile funtzioak izan zituen mugengatik. Esandakoaren arabera, denbora gutxi izan omen zen taldekako deliberazioan modu espontaneoan sortu ziren elementuak azken gomendioetan jasotzeko.

*Metodologia bat jarraitu behar zenez, ez dut hutsunerik sentitu sormena lantzeko (antolatzailea).*

*Izan dira ideia potente batzuk, parte hartzaileek esanak, baina gero gomendioetan islatu ez direnak (antolatzailea).*

# **NOLABAITEKO FRUSTRAZIOA LAGUNTZAILE FUNTZIOAK IZAN ZITUEN MUGENGATIK**

## **DENBORA**

Ikusitakoaren arabera, Tolosako Herritarren Batzarrak ELGAk horrelako prozesuetarako finkatutako denbora baldintzak bete zituen. Gainera, parte hartzaileek eta erakunde antolatzaileek adierazi zuten prozesuaren saio presentzialen iraupena egokia izan zela. Aldiz, prozesuaren prestaketari dagokionez, beste fase batzuetan oso epe estuekin funtzionatu zela ikusi zen (adibidez, izena eman eta zozketa egin arteko denbora oso justua izan zen).

Orokorrean, pertsona gehienek balioetsi zuten prozesuaren iraupena egokitzat. Haatik, balizko denbora gehigarria tokiko esperientzia gehiago eta adituen testigantzak ezagutzeko erabiliko zuket.

## **INTEGRITATEA**

Behaketaren arabera, talde eragilea erakunde komanditarioarekiko independentea izan zen, eta modu horretan diseinatu eta gauzatu zen prozesua. Egitura honek aukera eman zuen prozesuaren gobernantza autonomoa eta, aldi berean, aldean arteko elkarreragina arina eta zorrotza izateko, denborari dagokionean.

## PRIBATUTASUNA

Argazkietan ez agertzeko eskubidea bermatu zen. Soilik Tolosako Udalak eta Aztikerrek izan zuten herritarren datuei sarbidea. Aztikerrek konfidentziasun kontratua sinatu zuen udalarekin herritarren datuak zozketa zibikorako erabili ahal izateko. Behaketan ez zen horri buruzko inongo intzidentziarik jaso. Elkarrizketetan ere parte hartzaileek ez zuten aipatzeko deserosotasunik, erresistentziarik edo mesfidantzarik erakutsi.

Beraz, ELGAK eskatu bezala, prozesuko partaideek bermatua izan dute pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako eskubidea.

## EBALUAZIOA

Ebaluazio taldea Batzarreko lehen saioan aurkeztu zen, saio guztietan hartu zuen parte eta gainean egon zen Batzarreko saioen eta prozesuaren gainerako faseetan. Ebaluatzaileek prozesuko pertsona eta bilera guztiak eskura izan zituzten. Gainera, publikoki bi aldiz eman zizkien eskerrak Herritarren Batzarrean parte hartu zuten pertsona eta erakundeei ebaluazioa egiten lagundu izanagatik; iritziak jaso, datuak eta dokumentua eskuragarri izan eta behar adinako laguntza emanaz. Jendaurreko aurkezpenaz eta azalpenez gain, ebaluazio taldeak aurretiaz txosten bat aurkeztu zion talde eragileari behin batzarra amaituta.

Dena den, esan beharra dago partaideekin eta antolatzaileekin egindako elkarrizketetan ebaluazioarekiko nolabaiteko ezjakintasuna edo nahasmena sumatu zela, ebaluazioaren beraren helburuei eta zereginei buruz. Itxuraz, ez zen argi geratu ebaluatzaileen funtzioa prozesuaren kalitatea eta eragina ebaluatzea ote zen, ELGAREN irizpideetatik



abiatuta auditoria bat egitea, edota, besterik gabe, irakaskuntzak ateratzea.

Txostenean azaldu bezala, kanpo ebaluazioa hau ELGAK beste prozesu batzuetan iradokitako eta kontrastatutako irizpide objektiboetan eta adierazleetan oinarrituta egin da. Gainera, barne ebaluazio bat ere egin da antolatzaile guztien arteko topaketa bat eginik, eta ebaluazio taldeak ere bertan parte hartu zuen.

Txosten hau 2023ko martxoaren 25ean amaitzen da, erakunde komanditarioak gomendioei lehen erantzuna jendaurrean jakinarazteko aukeratutako datan. Beraz, Herritarren Batzarraren inpaktua oraindik martxan dagoen prozesu bat da, etengabeko jarraipena eskatzen duena.

## AZKEN ONDORIOAK

Tolosan 2022an egindako Herritarren Batzarra mugarrria da, Gipuzkoan egindako lehen prozesu deliberatzailea eta ordezkagarria izan baita. Batzarra egikaritzeko elkarlanean aritu ziren herritarrak, erakundeak eta tokiko eragileak mobilizatu zituen, deliberazio prozesu eta ordezkatzaile baterako ELGAREN irizpide formal guztiak betez. Horretarako, ahalegin handia egin zen baliabideei eta dedikazio pertsonalari dagokionez.

Emaitzetan deliberazio prozesuarekiko gogobetetze orokorra oso handia izan zen partaideen artean. Batez ere, baloratuak izan ziren askotariko errealitateak eta bizipenak izan dituzten pertsonekin topatzea, laguntzaileen kalitatea, jasotako babesa eta parte hartzaileen ekarpenak taldearen barruan aintzatetsi zirela sentitzea. Era berean, partaideek jasotako

informazioa eta landutako gaiari eta harreman publiko-komunitarioari buruzko gaitasunak eskuratu izana baloratu zuten.

Elkarrizketen azterketan, orokorrean, herritarren eta administrazio publikoaren arteko lotura sendotzeko beharrari buruzko pertzepzioa azaldu zen, eta elkarlaneko gobernantzaren gakoetan sakontzen jarraitzearen garrantzia ere bai, harremana alde guztientzat aberasgarritzat hartuta.

*Lankidetza hau oso emankorra da mundu guztiarentzat (emakumea, 51-60 urte).*

Prozesuan izandako aldaketak aztertzean, herritarren partaidetzarekiko eta deliberazio prozesuekiko konfiantza handia sumatu zen, eta, prozesua amaitu ondoren, areagotu egin da bi kasuetan. Gero, herritarren parte hartzearen gakoetan sakontzen jarraitzearen garrantzia nabarmendu zen. Antolakuntzako arduradunek ere adierazi zuten pertzepzio hori:

*Herritarrek erakundeetara hurbiltzeko balio du (antolatzailea).*

Ebaluazioaren mugei dagokienez, kontuan izan behar da uste hori oso handia zela prozesuaren hasieran, eta puntuazio oso altuak lortu zirela partaidetza prozesu gehiago egitearen garrantziari eta gomendioen izaera lotesleari buruz, eta bi kasuetan areagotu egin zela prozesuan zehar. Bestalde, azken inpaktuan gomendioen ezarpenari dagokionez ere, oraindik martxan dagoen prozesu bat da eta etengabeko jarraipena eskatzen du.

Azkenik, ebaluazioak hobekuntza arlo gisa adierazten du osasun mentalarekin eta ongizate emozionalarekin lotutako udalaren baliabideei buruzko informazioa herritarrengana zabaltzea. Era

berean, beste batzar batzuk egiteari begira, egokitu beharra eskatzen dute emandako informazioaren teknikotasunak, tokiko esperientzien testigantzak eta adituen testigantza gehiagok.

